


[7]



1971-Vda




Hortik zehar zenbait esperientzia.....	1
Egun bateko Bisita	8
Xartel zulodunak multzoen teoria adie- razteko laguntza bezala.....	10
Puntuazio marka batzuk non;noiz eta nola erabili (Euskalzaindia).....	13
Denok dugu aldatu behar.....	19
Ikastoletarako liburuak.....	22
Jolasa eta jostailua haurraren bizitzan...	26
Langile giroa.....	32
Haurrek ere ba dute hitza.....	37
Din Dan...Boleran	43



EUSKALTZAINDIA
AZKUE BIBLIOTEKA

HORTIK LEHAR ZENBAIT ESPERIENTZIA



Duela egun batzuek Kataluinian ikusitako "Xirivit" eskolaren berri azaldu nahi dautzuegu.

Eskola honek bost gela ditu: hiru tippientzat eta bi lehen-mailakoen-tzat, bakoitzean, hogeitau haur baino gehiagorik gabe.

Gehienak, goizeko 9'30-etatik arratsaldeko 5'30 arte han berean egoten dira; gosaria, bazkaria eta azkaria ere hantxe egiten bait dute. Hau dena, gure iritziz, eskola barruko giroan zer-ikusirik handia duelako egertu dugu.

TALDEAK

a).- Ttipienak: 2-3 urtetakoak alkarrekin daude. Talde honetan helburu bat nabari da: "Hau rrari, egin dezaken guztia eginerazi behar zaio!"

Sekulako garrantzia ematen diote ordena, garbitasuna eta gauzak erabiltzen edo jasotzen jakiteari.

Material guztia kaxatan banaturik dute eta honek, noski, asko errazten lehen aipaturiko ordena.



b).- 4 urtetakoak: lehenengo prozesu bera jarraitzen dute.

Adin honetan haurrak erresponsabilitateak hartzen hasten dira. Mural baten bitartez ageritzen du bakoitzak bere lana.

d).- 5 urtetakoak: hauen ikasgela mural handi batzuez apaindurik dago: erresponsabilitateak, eguraldia, ibilaldiak (zoologikoa), gertaerak eta korrespondentzia.

Ugaria da irakurketarako duten materiala:

- Hitzen eta objetuen elkarreratze.
- Hitzen eta idurien elkarreratze.
- Diktatu isila.

(Marrazki hauen bidez, marrazkiari dagokion hitza osatu behar dute)



K A

A U T

- Hitzen ordenatzea. (Diktatu isilaren teknika berdina da; bakarrik, letrak ordenatu beharrean, hitzak ordenatzea.)



SAGUA

JATEN



DA

GAZTA


ARI

!- Irakurketaren esanahia.

Orri bat lau zati eginik.

EGUZKIA SAGUA

ETXEA KATUA



Hau irakurri eta bere esan nahia marrazki baten bitartez azaldu behar dute.

e).- Lehen-mailan.-

Hara, 6, 7-8-9 urtetakoak gela bi tan daude, gorago esan dugunez. Lehen aipatu ditugun mural horietaz aparte, beste hauek dituzte:

1.-Gaiak (ikasgaiak)

2.- Hitzaldiak.

3.- Laneko plana.

4.- Kontseilua.

5.- Aldizkaria.



1).- Gaiak: Irakurri egiten dira, eta gero, a hakik sakonkien kritikatu egin behar dituzte. Hona ondorengo ariketak:

- Erresuma bat berek osatu behar di tuzten tarte batzuek dituelarik.

- Egin duten kritikatzeko lan horretan ate ratzen diren hitz zailenak kutxatila batetan gordetzen dituzte.

Hitz hauek, gero, irakurri ondoan, esakunak o satzeko zerbizatzen dute, baina esakun horiek gaiari loturik dohaz.



2).- Hitzaldiak.- Hauek, norberak hau tzen ditu, eta landurik duten gai ren bati buruz izan ohi dira.

Batek gaia azaltzen du eta ondoren galderak egin ditzake ulertu den ala ez jakitearren.

Gero, talde lana egiten da gaia borobilduaz.

3).- Laneko plana.- Astelehenean egi ten dute. Bakoitzak orri bat du bere gain:

Astele.	Astear.	Asteaz.	Oste.	Ostir.

Horri honetan beltzez seinalatzen dira elkarrekin egiteko izendaturik dauden lanak; go rriz, ordea, bakoitzak bereziki egin duena eta e gin ahal seinalatzen jokatzen da.

4).- Kontseilua.- Hona nolakoa den murala.

KRITIKAK	GORESMENAK	PROPOSAMENAK	EGIN DUDANA

Ostiral arratsaldean biltzen dira:


-Lehendakariak aurreko eguneko agiria irakurtzen du.

-Murala aztertzen da.

-Haur bakoitzak bere laneko plana aurrean duelarik, berak astean zehar, errealitatean, egin duen lana agertzera ematen du, eta aurreko kontseiluan hartu zituen konpromisoen kontu eskatzen zaio.

-Kontseilu honetan hartzen diren erabaki ororen berri idazkariak jasotzen du eguneko agirian.

5).- Aldizkaria.- Testu libreaz osatua izaten da. Aldizkaria egiteak gastu batzuek dakartz berekin: orriak direla, grapak, tinta... Horregatik, presupuestoa egin ondoan, aldizkariari prezioa ezartzen zaio, eta saldu egiten dute.



LANAREN ONDORIOAK.-

Lana egiten dohazen heinean, dohaz baita biblioteka edo liburutegia osatzen ere. Hona nola:

-Egindako hitzaldi bakoitza liburu gisa moldatzen dute.

-Historiako bloka.

-Geografiako bloka.

-Izadi-jakintzako bloka. (Abereen irudiak erantsi, abere horretaz dakiten guztia i datziaz.

-Korrespondentziako liburua. Adibidez: Eskutitz bat Frantziatik heldu da. Liburu honetan noiz heldu den, zer bidali duten eta zer jartzen duten apuntatzen da, baita ere noiz eta zer erantzuten den.

-Fotografia komentatuak.

-Fitxak.

-Kalkulatze lana.



-Arazoak (prolemak): a) Haurrak asmaturiko ak. b) Irakasleak asmaturiko ak.

-Eztabaidak:

a) Ipuin bat irakurtzen ari di relarik, ipuin horretaz galdera batzuek.

b) Pusketa bat idatzi, eta puske ta horri buruz galderak.

-Asmaki zunak.

-Ariketak.

- a) Esakun bateko hitzak ordenatu.
- b) Izen mota desberdinak berezi.
- d) Esakunak egin.

- Olerkiak.
- Geografiko lanak.
- Kondaira lanak.
- Ariketa egokituak

Adibidez bilinguismoaren arazoan sor
tzen diren zailtasunak gainditzeko: ka eta ca;
b eta v; a eta ha etab.....

-Ohartze-lana.


Maitte-Maria Josefa eta Mari Karmen.






EGUN BATEKO BISITA

Freinet-en metodoa eramaten duten eskola batzuekin har-emanetan jarri nahirik, abiatu ginen Pabe (Pau) aldera. Goizean goizik at^{er}ra ginen herritik, haurrak eskolara sartzen ziren ordurako hara heltzeko asmoz. Baina bai zera! bestenaz gertatu zen: batzuek galdu eta besteak haien bila, arratsaldeko hirurak ziren eskolaren ataria ikusi genuenean.



Arras ongi hartu gintuzten eta gogo onez azaldu jakin nahi genituen gauzak, baina hona hemen ondorioa: aldameneko ogia beti hobe dela. Nahiko lanekin!

Guti gora-behera hogeiaula zeuden edifizio batetan andereño bakarrak zerabilan metodo hau. Honen arrazoina galdegitean, zaila eta gogorra zela adierazi zeukun. Inspe^zzio aldetik izugarriko kontrola omen dute eta, nonbait, haurren askatasunezko heziketa hori komeni ez zaielako, zailtasun eta traba gogorak ipintzen omen dizkie. Frantses kontestoa ere, ikusten denez, ba da lanik asko, izan ere tradizionalki jokatzea mila bider errazago bait da.




Honek berak testo eta marrazki librea erabiltzen zituen, baina inprenta eta limografoa delarik ez. Dena dela, beste eskola batzuen izenak eman zeuzkigun a palki, eta hilabete oro elkarrek kin ukan ohi duten bilkurara jo hateko baimena eskaini ere bai.

Gauza adigarri bat esan zeukuten. Gu, geu-
ron artean euskaraz ari ginela oharturik, ea
euskerarik erabiltzen genuen eskolan galdegin
zeukun. Erantzuna, jakina, gehienbat euskeraz e-
giten genuela esan genionean, biziki harritu zen.

Saran, Lapurdiko Saran, ba zegoela Frei-
nete-en eskola bat, zion, baina haiek ez zutela
euskerarik erabiltzen. (Penaz bezala esaten zu-
en).

Funtsean, lanari fermuki eta tinko hel-
du behar geniola eta har-eman haiek jarraitze-
ko asmo biziz itzuli ginen.





Multzoen teoriako zenbait oinarriko idea ulergaitz egiten zaie maiz haurrei; elkar-goia, bilkura, multzo hutsa e.a.


Hemen oinarriko idea horiek arras garden uzteko era erraz bat proposatzen dugu. Fletcher-en liburu bikainetik (1) hartua dugu eta ondoren guk geuk moldatua eta erabilia 10-11 urteko haurrak ditugun ikastolan.

Adibideak hautatzean, xartelen kopuru an eta neurritan e.a. arreta pixka bat izaten bada, askoz ere lehenago has litekeela erabiltzen uste dugu.

Lanbide hau azaltzeko, adibide zehatz bat erabiliko dugu. Ikastolan dugun haur taldeari begira saia gaitezen klasifikazio bat egiten bost ezagugarri kontuan hartzen dugularik:

- A : ile gorria.
- A' : beste edozein motatako ilea.
- B : mutikoak.
- B' : neskak.
- D : bertan jaioa
- D' : kanpoan jaioa.
- E : senide zaharrena (edo ta haur bakarra)
- E' : senide zaharragoak izatea.
- F : noizbait egon Iruiñen.
- F' : ez da iñoiz Iruiñen egon.

"Xabi" izeneko haur baten xartela horrelakoa izan liteke:



Xartel honek dionez, Xabi mutikoa da, ez da ilegorria, bertan jaioa, senide zaharragoak dituena eta ez da inoiz Iruiñen izan.

Zulo bakoitzak ezagugarri bikote bat adierazten du beraz. Ezagugarri hori A, B, D, E, e do F denean xartela berdin geratzen da.

Ezagugarriren bat A', B', D', E' edo F' baldin bada ordea xartela ebaki egiten da marrazkian azaltzen diren arrastoetatik.

Xartela prestatzeko urratsak hauk izan litezke:

- 1) Taldea eta ezagugarriak hautatu.
- 2) Xartelak zulatu lehendik hala ez baleude (xartelak pilan ipintzerakoan zulo guztiak parean gelditu behar dute noski).
- 3) Xartel bakoitzari elementu bat elkartu.
- 4) Ezagugarri bakoitzari dagokion lekuan A ala A', B ala B', e.a. den ipini.
- 5) A', B', ... direnak ebaki.

Xartel guztiak pilatuta baldin bada duzkagu, ezke

rreko zulotik alanbre bat sartzean eta jasotzean haur ilegorrien multzoa bereziko dugu, beste edozein motatako ilea duten haurren xartelak (A') ebakita egonen direnez erori eginen baitira.

Alanbre bat A-tik eta beste bat B-tik sartuko bagenitu mutikoen eta haur ilegorrien multzoen bilkura eginen genuke AVB, hots mutiko ilegorrien multzoa.



Exenplu honetan erabili dugun gaia i kastolako taldea izan da baina berdin erabil zitezkeen animaliak, hibaiak e do hiriak e.a. hau da, egin nahi ditugun ariketan eta heldu nahi ditugun ondorioen arabera aztertu beharko ditugu ezagugarrik egokienak.

Zenbait ohar

- Zenbat eta ttipiangoak izan haurrak ordun eta xartel haundiago eta astunagoak erabiltzea komeni da eta alderantziz.

- Bulegotan zuloak egiteko erabiltzen den tresna horietako bat erabili daiteke xartelak zulatzeko.


- Ezagugarriak haurrek erraz uler ditzaten ongi hautatu behar dira. Horrela multzo hutsen bat azaltzea nahi badugu edo ta elementu bakarrezko multzo bat, i nor ez duen ezagugarri bat edo ta batek bakarrik duen ezagugarri bat hartu beharko dugu.



(1) FLETCHER, T.J. : Didáctica de la matemática moderna en la enseñanza media.



1.- Harridura eta galdera markak (!?)



Harridura eta galdera markak esaldien hasieran eta bukaeran jarri behar ote dira, ala bukaeran bakarrik? Gaztelaniak lehenbiziko bidea segitzen du, frantsesak bigarrena. Kontu honetan euskeraz, gaurko egunez, idazlerik gehientsuenak bigarren bidea harturik daukate, hau segitzen bait dute gaztelaniak ez beste hizkuntza guztiek. Euskaltza indiak ohitura edo joera hau ontzat ematen du. Beraz, Erregela: Harridura eta galdera ezaugarriak esaldiaren bukaeran bakarrik jarriko dira.

2.- Zenbakiak

a) Ehuneko hainbeste adierazteko marka, zenbakiaren aurretik jarri bedi. Adibidez: % 5 = ehuneko bost. Arrazoia: euskeraren izakerak ordena hau eskatzen bait du.




b) Ordinalak. - Erromatar zenbakiz idazten direnean, ez bedi jarri beste adigarrik, erromatar zenbakia bera bait da adigarrik asko ordinala dela adierazteko. Adibidez: X mendea (Hamargarren

mendea). Deklinazio kasua jarri behar denean, aski da atzizki soila ipintzea. Esate baterako: XXean (hogeigarrenean); Xaren (hamargarrenaren) Zilegi da baita honela ipintzea: X.aren (hamargarrenaren esateko); X.garren (Hamargarren esateko) etab.

Arabitar zenbakiz idazten direnean, puntu soila jar bedi azken zenbakiaren ondoan, ordinala adierazteko. Adibidez: 200. urteburua (Berrehungarren urteburua) Eta deklinazioan, berdin: puntuaren ondoan atzizki soila jartzea aski da. Esate baterako: "Berrehungarrenean", era honetara idaz ditekete: 200.ean (edo CC.ean). Hala ere ez da baztertzen beste era: 17.garren eta abar.



d).- Kardinalak.- Nai z eta zenbakiaren ondoren atzizkiren bat etorri, zilegi izan bedi tartean ezertxo ere ez jartzea. Adibidez: 8an (zortzian). Arrazoia: sinpletasuna eta premiarik eza.



3.- Komatxudun hitzen ondoren, nahiz eta atzizkiren bat egon, zilegi izan bedi, orobat, tartean ez deus jartzea. Adibidez: "Anaitasuna"n, "Jakin"era, "Zeruko Argia"tik. Arrazoia: sinpletasuna eta gehiagoren beharrik eza.

4.- Siglez osatutako hitzak, jar ditezke letra maiuskulaz, atzizkia letra arruntez, bat e

re tarterik gabe. Adibidez: UNESCOren, USAko.
Arrazoia: sinpletasuna eta gehiagoren premiarik eza.

5.- Apostrofua (')



Noiz erabili behar da apostrofua ('). Honetan ohitura bat baino gehiago izan da eta da oraino euskeraz idaztekoan. Adigarri honen zeregina eta marratxoarena ongi mugatu eta berezi behar dira bata bestetik, bakoitzari bere balio eta esanahi jakina ezarritz. Berezketa hori egin nahiz, eta gaur idazlerik gehienak harturik duten bidea onartuz, Euskaltzaindiak erregela hau proposatzen du: hitz batean letra bat edo beste jan dela a-

dierazi nahi denean, orduan jarriko da apostrofua. Esate baterako: "Bederatzi t'erdia". Arrazoia: Hau da inguruko hizkuntzetan marka honi ematen zaion balio edo esanahi-a. Gure artean ere franko ugariak dira bide honi jarriak direnak, eta finkatu behar dela dirudi. Beraz, erregela:




Hitz batean hotsen bat eza batu dela adierazi nahi denean, eman bedi apostrofuaz aditzera.

Hontaz, ordea, oharpen bat egin beharra dago: benetakoz premiarik ez denean (zerbait bereziki adierazteko edo), horrelako jate horiek ez direla iskribuz adierazi behar. Beraz, hitzak osorik idaztea gomendatzen du Euskaltzaindiak.

(Gainera, hitz elkartuetan, silaba galea gertatuagatik, ez da ezer jarri behar, edo

jartzekotan, marratxoa jarriko da. Baina hortaz hurrengo puntuan,




6.- Marratxoa (-).- Marratxoa da, zubi antzo, lokarria adierazteko erabiltzen den marratxoa. Bi hitz-tzen artean edo hitzaren eta atzizkiaren artean jartzen da. Ez ordea beti. Adigarri honetzaz euskera idatzia gehiegi zama ez dezagun, kasu beharrezkoenetan bakarrik jarri behar dela uste dugu. Kasu hoietaz landara, bat ere markarik ez erabiltzea hobe. Hona hemen, bada, kasurik beharrezkoenak:



a) Pertsona edo toki izen propioetan

Arrotzak, ezezagunak edo gutti ezagunak direnean bakarrik. Adibidez: "Scott-ek", "Bremen-en", "Hitler-ek". Gainerakoetan, deus ez: "Orion" "Bolibarren", "Gernikatik", "Parisen", "Axularren irakurria"...

b) Aldizkari eta liburu izenetan, aipamenetan eta abar.



Komatxorik ez denean eta atziz kiren bat segitzen baldin bada, tartean marratxoa jarri beharra dago. Adibidez: "Garoa-n irakurtzen da". "Prantsesezko corps-ek" (letra berezia marrraraino bakarrik).

d) Atzizkia edo aurrizkia soilik aipadenean.


Adibidez: "-tu atzizkia", "ber-aurrizkia".

e).-Hitz elkartuetan. Ez ordea beti. Hitz elkarteak beti sortzen ari da euskera. Beti horrelakoetan marra jarri beharra, aspergarri eta are itsusi ere litzake. Aipa ditzagun kasurik beharrezkoenak. Hoietaz landara, ezer ez jartzea hobe:

-Hitz elkartearen bigarren zatia lehenbizikoaren oihartzuna denean. Adibidez: "Tartekamarteka", "nahas-mahas", "duda-mudatan",

-Marratxoa jarri gabez, hitz elkartearen ote den garbi ageri ez denean, adibidez: "kandela-argia", "batzar-agiria", "andre-sengagile", "haur-saltzaile". Beti ordea, horrelakoetan, jarri beharrik ez da: hitz laburrak direnean edo lehenbiziko hitzaren bokala galdu ez baina, aldatu e giten denean, hobe da dena loturik idaztea. Adibidez: "Ahezabal", "buruhandi", "sudurluze".

-Bikotea osatzen duten esaldietan. Adibidez: "senar-emazteak", "seme-alabak", "nagusilangileak".



Bukatzeko, hau bedi erregela nagusia:

Marratxoaren enplegua kasurik beharrezkoenetarako utz bedi.

Aipatu diren hauek dirudite beharrezkoenak.

Euskal zaindiko idazte arauak estudiatzeko BA

TZORDEAK.

Euskalzaindiak maiatzaren 28-an eginiko ba-
tzarrean hartu zituen erabakiak dira. Gure us-
tez, ikastolentzat guztiz jakingarri direlakoan
ematen ditugu aldizkariaren zenbaki honetan.



DE NOK DUGU ALDATU BEHAR

Azken aldi honetan bizi izan dugu nahi ko gora-behera Goiherriko Lizeoan, eta hauen sustraia non zegoen edo zein zen argitzea ez da artikulo batetan egin daiteken lana. Lalere...

Haurra bera dugu arazo honen muina, baldin-eta haurrarekiko hartu dugun konpromiso an ikastolak duen helburu bikoitza gogoan badugu, behintzat: zera, euskal heziketa eta ikasketa.




Ez daitezke bi alderdiak zaitu, persona erdibitu ez daitekean bezala. Nahiz eta behar den baino kasu gehiagotan hala gertatu. Ez dakit giroak bultzaturik edo zergatik, baina maizegi jartzen gara instituzioaren zerbitzu hutsean.

Batxiler ikasketak zirela-eta horrelako zerbait gertatzen zitzaion Lizeora zohan haurrari. Hasi gurasoen gandik eta inguru osoak bere lana ta egin beharra kursoko azken-ondorioen baitan ipintzen zuen.

Egoera honetan, jakina, harraren inizatiba eta askatasuna arras mugaturik zen eta heziketa erabat ahazturik ez bazen ere, zerbait baino gehixeago bazterturik zela aitortu behar. Gisa horretan ikastolak duen eta poliki-poliki mamitzen ahalegindu den helburuetarik nagusiena, heziketa (nagusiena diogu, honen pean ikusten bait dugu ikasketa edo jakintza ere) mozturik gelditzen zen, jarraipenik gabe, alegia.



Ez dela holakorik gertatu? Baietz diot nik eta gainera oker handi gabe esan genezake, ene ustez, hortantxe zetzala gure Lizeoko arazo aren gakoa.




Alabaina, ez gaitezke orain horrela gelditu gaitzak poztu egingo baginu bezala, ez. Denoi dagokigu erresponsabilitatea, eta beraz, denok dugu aldatu behar egoera hau, guk egiten duguna izanen bait gure Lizeo.

Esan beharra dago, baita, delako "Oinarri Irakaskintza" k erraztasun handiagoak eskaini dauzkigula gure helburua aurrera eramanezagun.



Denok dakigunez, bi ziklotan dugu irakaskintza molde berri honetan; eta lehendabizikoan, hots, 1-5 kursotan, ez da promozioko frogarik izanen, irakaslearen baitan gelditzen bait da. Bigarrengoan berriz, bai, baina bakoitzak bere eskolan egin ahal izanen du. Ba dirudi azterketaz zerbait ahaztu gaitezkeala, eta errealitate hau, gu nor bagara behintzat, benetan onuragarri izanen da.




Hasiara emateko, johan den astean eta lehendanik egin dugun zenbait bilkuraren ondorioz, heldu gaituzu erabaki batzuek hartzera. Lehenik, programa aztertu dugu eta hiztegia batutze ari ekin diogu, beharrezko ikusten bait genuen inguru herrietako irakasleek hiztegi berdintsu a erabil dezagun Lizeora bilduko diren haurrek

hiztegi zehatz eta bateratuaren jabe izan diteze
zen. Matematikari atxiki gatzaizkio oraingoz,e
~~ga~~ gero berdin jokatuko dugu beste gaiekin ere:
geografia, kondaira, etab.


Honen ondoren, metodoen azterketa egin
nen dugu eta ahal den heinean batera jo nahi
genuke. Izanen ahal dugu, gisa horretan, Lizeon
hainbat aldiz amestu dugun ikastolen jarraipen
a!

M.K. Iztueta.




IKASTOLETARAKO LIBURUAK


Aldizkaria gure arteko arazoak aztertzen eta beroein berri guziori zabaltzeko denez, gaur egun bizirik dugun arazo bat planteatzen saiatu tuko naiz.



Liburuaren arlo honetan, hain zabala baita arazo hau eta handiagoa hau garaitzeko egin beharko dugun lana, honen puntu guztiak aztertzea gehi egizko lana da niretzat. Izan ere, honetarako da kidan baino gehiago beharko nuke jakin eta saiatu lan honetan eta ezinezkoa zaida. Lantxo honetan puntuaren bat edo beste ukituko dut, gero besteren batek osa dezan, edo arazo honi buruz beste planteamendu bat egin dezan.



NOLAKO LIBURUAK DITUGU




Liburuak tresna direnez heziketa sentidu bati lotuak egoten dira. Gaur egungo liburuari begirada bat ematean hau ikusten dut nik:

- a)- Maisu-Haurra binomio hau kontuan harturik eginiko liburuak direla.
- b)- Azterketa batzuei begira eginak dagozela.
- d)- Jakintza mail eskas bat eskeintzen dutela. Eginak dagozen gauzak eskaintzen zaizkio haurrari. Jakintza ideia mordo bat eskaintzen zaio era honetara eta errealitate hau onartzerat bultzatzen dute haurra.

Puntu guzti hauk gauza bat azaltzen daukute: Gaurko heziketa kapitalista sistimari ego kitzen zaion heziketa dela. Heziketa honen helburuak gaurko errealitatea onartzea garamazte- la.

Eta egun gizarte berri batetan sinesten dugunean, eta hau eraiki nahi dugunean, uste dut, ikastoletako irakasleok badugula egitekorik (bai maisu eta andereñoek) eta ahalegindu behar du gula lan honetan guri dagokigun e- ginkizuna ahal eta hobekienik bete- tzen.



Eta liburuei buruz hasi naizenez, eta li buruak tresna direnez, haurrei beste bide berri bat eskaini behar diegu, beste molde bateko li- buruak, beren interesak kontuan hartuko dituzte nak, balore berri batzuk eskainiko dauzkienak, euskeraz pentsatzen irakatsiko dienak bera bizi den errealitate eta ezagutze ra eta errealitate honen arazoak a- zalduko dauzkienak, eta biharko egune rako prestatuko dutenak.




NOLAKO LIBURUAK EGIN

Era guztietako liburuen faltan aurki- tzen gara.

Pedagogi metodu berri batetan abiatu ak garanez gero, metodu honi eran- tzunen dioten materiala beharko dugu.


Gizona egiten ari den giza- ki bat dela dakigunez, lanaren bi dez egiten dan heziketaz baliatzen hasiak gara. Haurra da, irakasle- en laguntzarekin heziko dena.



Errealitatea globalki hobetoago ezagutzen du haurrak.

Errealitate honen aurrean prestatzen hasi behar du haurrak.

Hau honela liburu mota bat-errealitateko gaiak globalki emanak-eginen lukete. Gai baten atal nagusiak kontuan eduki-rik: ikertze lana, geografiakoa, kondairakoa, gizarte arazoak. Materiak honen helburua da haurrek ttipidanik errealitatearen konplexitateaz kontura daitezten. Atal hauek elkarren arteko erlazioak dituztela jabetu araztea eta sintesiak egiten ikas dezatela. Honela, bada, lanerako tresna bilakutzen dira.



Gai hauek gure herriko errealitate a aztertze bide izanen lirake.

Hemen bizi den jendea ezagutzeko bide lirake, beren bizimodua, beren kondizioak.

Liburu hauek maila bakoitzari dagozkienak izanen lirake. Adin bakoitzeko haurrei begira egin beharko lirake, beren premia nagusienak zeintzuk diren kontuan hartuaz.

Liburu hauek irakaskintza moduari begira eginen lirakenez beste puntu bat ere kontuan eduki beharko genuke: Haurrei lanean irakatsi beharko geniekela. Hau da, klasearen organizazioa lan egiteko era aproposak beharko genituzkeala liburu hauek probetxugarri ditezten.




NOLA EGIN LIBURUAK?

Gu baino lehenago hasiak direnen berri jakin eta beren metodoak azterturik. Esate baterako Freinet-ek "Biblioteque du travail" de

lako liburu bilduma azterturik. Era berean, beste zenbait liburu. Lehenengoz besteak ematen daukutena probetxatzen hasi beharko dugu, eta guri dagokigun erara ipini.

Lan hontarako talde zabal bat beharko litzake, materialaren kezka dutenek osaturikoa. Jakintsuekin kontatu beharko dugu, noski, baina lan hau prestatzen guk hasi




behar dugu edo beste 10 urtetan berdin jarraituko dugu.

Lanean hasteko era bat litzake: giro berdineko herrietako irakasle batzuk berroiek bizi duten

errealitatea aztertzen joatea, kondairako eta geografiako datoak batzea eta prestatzea.

Liburuska hauek biblioteka modura eginkoak beha ko lukete, ale bakoitzak gai bat aztertzen duelarik.



Baina gai hauek lantzen ikasteko, aurrez aurretik, globalki eginiko zenbait gai nagusi egiten bagenu erraztu egiten da gure lana.


Beste zenbait gai euskeraz itzultzea izanen lirake, ezagutzen ditugun liburu interesgarrienak behintzat. Honetarako ere planteamendu bat egin behar-beharko litzake irakasle guztien artean eta gero taldeak sortu.

Ez dakit zerbait planteatu dudana; ahale gindu naiz behintzat eta ea beste norbaitek zerbait gehiago aztertzen duen; izan ere, gure artean dugun punturik nagusienetako bat dela deritzaida.

Hurko

JOSTAILUEK JOLASA HAURRAIAREN BIZITZAN



Jolasa ez da haurra pozik eduki ahal izanen duen zerbait bakarrik, guztiaz beharrezko duen jakintza paregabearen iturri baizik.



Haurra, jolasean hasten den unean, horta tarakoxe gai dela esan nahi du. Baina hasieran, berez bakarrik jolastu daiteke. Ez da inguruak emandako irakaskintzaz jabetzen. Berez, jolasa egiterakoan, ustekabean, gauzak ukitu, bota, hartu, hesitu, eta erabili az soil adarrak mugitzen ditu.

Jolasaz kanpo, jan, garbitu eta hain ttikia denean "lo" ere egin behar du. Baina hau egitea ere jolasa da, noski. Beraz, jolasa, loa, eta jana bezain garrantzitsua da.

Hona hemen haurrak egunen zehar jolaserako behar duen denbora: bi hilabete-rekin hamar minutu; lau hilabete-rekin ordu bete; urtebetekin berriez zortzi ordu behar ditu, eta honela, eskola garaia irixtean bederatzi ordu inguru behar ditu.




Jolasek eta jostailuek haurrak a din bakoitzean dituen beharrei erantzun behar die.


Jolaserako behar duen denbora ikusiaz, hona nola, hasieratik eskola garaia bitartean jolas-denbora gehiagotzen doan. Eskola garaian, ordea, jolas denbora hau, esko

la barruko ekintzez betetzen du.

Haurra, sortuz gero, laster hasten da jolasean eta lehenengo jostailua bere gorputza du. Gorputza mugitu; iluna eta argia ikusi; gero ago, gauzen mugitzeari jarraitu; margo eta irudi biziak berezi. Beraz, ikusi, mugitu, ukitu, altxa, byltza, gauzen arteko erlazioaz konturatu; handi a ala ttipia, margo ezberdina, pisua-arina, hotsak entzun eta aurrerago bera hotsen egile izan.




Orain arte aipatu ditudan jolas hauek, bi urte bitartekoak dira. Ez dut honekin zera, jolas hauek, bi urtez gero ezin egin litezkeela esan nahi, baizik adin ezberdinean maila ere al datu egiten dela.



Hona bi urte bitartean erabili daitezkeen jostailu batzuk: txin-txarria (sonajero), ireki daitezkeen kaxak, arrastaria. Hamabost hilabeterekin ibiltzen ikasi ondoren oso atsegin zaio inguruan duen jostailuarekin etxean zehar ibiltzea, edo ahal duen neurrian arrastatzea. Egurrezko kuboak, hauek erabiltzen hamar hilabeterekin has daiteke; lehenik hustu edo bete eginen ditu, geroago bera kon-

turatuko da hauekin egin daitezkeen lan ezberdinez: bata bestearen gainean, aldamenean, barruan, alde batera begira, bestera, etab. jarriaz. Kubo hauek hiru urte bitartean erabili daitezke edo erabili behar lituzkete.

Bigarren urtean lehen ikasi duena landu behar du. Langai berriak eman behar dauzkiogu, lan hori errazteko. Urte sasoin honetan etxearen alde batetik bestera ibiltzearen zale da, eta hau bere jostailu ekin batera egiten du. Lehen arrastaka erabiltzen zuen jostailua bera, orain ere horrela erabiliko du, baina, orain erraz erabiltzen duela konturatzen da; tresna hori erabiltzeko bere indarrez baliatzen dela etab. Adin honetan gauzen erlazioaz konturatzen hasten da, hala nola: kaxak estali, irudi ezberdineko enkajeak bakoitza bere tokian jarriaz. Erabiliko duen materialak kondizio batzuk bete beharko ditu: zurezko zati handiak, margo biziak, pisu, laztasun... Jolasean dabillean, imajinazio lanean ere hasten da. Honela herratza zaldi bezala hartzen du, aulkia berebila bezala. Lamina edo liburuxka batzuk ere erabiltzen has daiteke. Irudiak bizi, letra gabeko, eta oihalezko edo kartoizkoak behar dute izan. Kartoi edo oihalezkoak ez badira, ikusteari hainbat puskatzeari emanen lioke garrantzia.




Hiru eta lau urtetara heltzean, bere etxe ko zorutik kanpora irten nahi du. Beste era bateko zoruak zapaldu, eta izadiak harreman herstuak izan. Mendira egiten dituzten irtenaldiak oso beharrezkoak dira.



Bere gorputza ongi domeinatzen duela ikusirik, ikasten du zerbaiten gainean jartzzen ere: zaldi, erratz, triziklo, berebil handi, etab.


Hiru urte betetzean, lehen esan dugun bezala, ez du orain arte ikasitako guztia alde batera utzi behar, baizik lehen baino jabetasun gehiagoz jolastu. Haurra egile bihurtzen da. Herri bat egiteko, etxe, zuhaitz, berebil, abere eta gauza handiak oso atsegin zaizkio; etxe bat egiteko berri zati handiak behar ditu izan. Adin bakoitzean bete ahal izanen dituzten kondizioen neurriko lana eman behar diogu, beste la kaltegarri izanen litzaioke.



Esku lanetan erabili dezakeen materiala: orea, buztina, papera, aleak, kartoia, etab.




Lau urte betetzean, talde lanean has daiteke. Orain arte bakarrik jolasteko erabili dituen jostailuak, orain talde jolasetarako erabili liko ditu. Elkarrekin lan bat egin. Batak besteari gauzak utzi; elkarren iritziak kontuan izan... Talde jolasak egiteko hauek egokiak dira: domino, buru-hauste, asmakizunak, osake osaketak. Espresio lana bizi-bizian jarraitu behar dute. Joste-lana bitartez, gure abotsaren bitartez baino lehenago helgintezke haurraren gana.



Enkajeak, buruhausteak, eskalak, eskulanak beren aurrerabidean behar duten neurrian jarraitu behar dute. Joste-lana, egurrean, kartoian, paperean, zakuan, oihalean, egin dezake hari-az edo rafiaz.

Bost urtetik sei urtetara, jolasak guztiz osatzen duen heziketa haroa bukatzen ari da. Sei urte betetzean, lehenengo jolas aldi hori utzirik, eskola garaian sartzen da. Orain ere jolas eginen du. Baina jolasak beste egin behar batzuk beteko ditu: egunoroko lanetatik geratzen zaion denboran atsedena ldi bezala hartuko duen tartean jolastuko da. Urte hauetan, orain arte erabilitako jostailuak inguruan izan behar ditu, bakoitzan dituen berezitasunak lantzen joan dadin.



Lau urte betez gero, berak egin niko lan honen frutuaz, besteak ikustea nahi du, honela askoz hobekiago egiteko zaletasuna sortzen zaio.



Ustekabean, jolasa utziaz, bere denbora lanaz betetzen du. Jolasean hasi denean ere lanean hasi da. Arreta handia jartzen zuen bere konstrukzio eta gainontzeko ekintzetan. Jolasteak garrantzi handia badu ere ez du ttipiagoa jostailu bakoitza bere lekuan jasotzeak, erabilitako gauzak ordenatzen jakiteak.

Orain egile izan nahi duen garaian, lehenengo jostailuak alde batera utziaz doa, eta tresna ttikiagoak eta zailagoak aukeratzen ditu: arotz tresnak, mekano eta beste batzuk. Honela, berak eginiko lana dela medio, mugitzen eta ibiltzen diren gauzak egiteak poz handia ematen dio.



Entzun-ikus-gailuak ere zer ikusi handia dute: diapositiba, doinu, argi, margo. (Tokadisko, magnetofoi, radio, linterna).

Lehen esan bezala, talde jolasak garrantzi handia du. Hona elkarrekin egin daitezkeen jolas batzuk: baloi handiaz, abestaldeak, boloak, txirrinda, tenis, ping-pong, pelota lekuan egin daitezkeen hainbat jolas, eta material gabe gorputzaren zilipurdiaz baliatuz eginen dituen guztiak. Adin honetan oso gogozko zaio gauzen bildumak egitea (kolekzioak): kromo, kaxa, zigilu, etab.




Ikusi dugun bezala, haurra zentzu jostailuetatik mugimenduzkoetara igaro da, eta hauetatik fantasiazkoetara.

Jostailu egokienak, pentsatzera behartu, memoria landu eta gauzen arteko erlazio ta ideiaz jabetzen lagunduko diotenak dira.

Fantasia lanerako, disfrazak behar dute. Giñol panpinekin lan asko egin daiteke, no la ikusiaz hala bera egile izanaz.




Arantxa Allur



LANGILE GIROA

-1- Non eta zergatik.-

Estudiante, ikasle edo irakasleek non hartu eta biziko dute giro hau? Nork erakutsiko die giro hau zer den? - Langile eta laborarien (nekazarien) artean: esan nahi bait da, langile eta laborari behartsuen artean. Hauek erakutsiko daukute langile giroa zer den, eta beraz, hauen artean sartu behar dugu.



Zergatik jokatu behar dugun honela? Izan ere, gure artean, edozein gizartetan bezalaxe, aberatsak eta behartsuak dira aurkitzen; diferentzia hauek diren bitartean, batzuek (gehienak) esploatuak, zapalduak, behartsuak izango dira, besteen, guti batzuen, mendeen.

Egoera honi bukaera emango dio-na, behartsuen, hots, langile eta laborarien taldea izango da.

Hau konprenitzea, eta burruka honetan sartzea; hau da langile giroa benetan ulertzea eta aurrera eramatea.

-11- Nola helduko gara giro hau ulertze
ra?


a) Norberak egoera ongi aztertzea da lehenik egin behar dena. Denok erre egoismo handi bat hezurretaraino sarturik bait dugu; eta hori hausteko nor

berak bere buruaren kritika sakon batetara heldu behar du.


b) Gero, bere inguruan den giroarena, eta pertsona guztien kritika bat egin. Ezin bait gintezke aurrera johan, nondik gohazen eta norekin kontatzen dugun jakin gabe.

d) Alabaina, norberaren eta bere inguruaren kritika bat egitera heltzeko, munduaren konzepzio zientifikoaren jabe izatera heldu behar dugu. Zer esan nahi duen honek?

1.-Langile eta laborari (behartsuak) eta menperatzaileek (aberatsek) burruka gogor bat dutela beren artean. Esate baterako, langile eta nagusi kapitalisten artean. Zenbait lekutan, laborariak ere ez dira beren lurren jabe; eta lurrandidunen baitan daude eta lur hauen kentzeko, ba da burrukarik asko. Ez dituzte emango, bertzenaz.



2.-Egoera hau langile eta laborari behartsuek bakarrik aldatuko dute, ez beste inork.




3.-Munduko egoera eta gertakizun guztiak hortan dute beren erroa, eta horretara dohaz. Hau konprenitzea eta beti gogoan edukitzea da "konzepzio zi-

entifikoa". Hots, gertakizunak, analisisa eta zientzia bidez esplikatzea.


Hau onartzen badugu, langile eta laborari behartsuen burrukan eta giroan sartu eta parte hartzera johan behar dugu. Berak erakutsiko daukute zer den burruka hori eta norat

dohan;guk ikasi eta lehen bai lehen pratikara eramaten jakin behar dugu.



-111- Nola jokatu giro horretan.-

A a)- Langileek eta laborariek gure arazo eta asmoak konpreni ditzaten nahi badugu, beharreko dugu berauekin bat egin dezagun. Eta inola ere asko gos tako zaikun gauza da, oraino oso-oso rik burgesak bait gara. Eta burgeskeria horren aurkako burruka gogor bati ekin behar diogu: gure ohitura



bizimolde eta burges lotura oro etentzeko.

b)- Eskuak zikintzeko beldurrez baldin bagaude, garbiero agertzen dauku honnek langile eta laborariek ez dugula bat egin oraino. Ez gara-eta beren antzerakuak; eta horretara heldu behar gara. edo jo behar dugu, behintzat.



d)- Lanik gogorrenak eta zakarrenak egi teko prest egon behar da eta gu ez gaude oraino, intelektual burgesak bait gara. Orduan bakarrik konprenituko gaituzte langile eta laborariek, eta aitzitik, guk ere berak konprenituko ditugu.

-1V- Ondorioak-

a) "Langile giroari" buruz idatzi eta esperientziak frogatu dituenaren ikasketa sakonetara jo behar da.


b) Egun, gure artean "giro" horretan burrukan dabiltzanekin har-eman herstuak eduki-tzea.

d) "Giro" horretan dituzten arazoetan, guk ere parte hartzea.

e) "Giro" hau guztiek konpreni dezaten zabalkunde eta heziketa lan jatorra egitea.

f) Gure ikuspegia irekitzen edo zabal-tzen ahalegintzea; eta horretarako, prolema oro "giro" horren barnean ikusi edo arakutzen saiatzea.

Adiskide



HARRERREKERE BAITZAZA

Heziketaren prolemak.-

Egungo guraso, hezitzaile eta apaizek a
ahazturik ote dituzte haurrak? Ba da hainbat
denbora gai honi buruz inon ez
dela biltzar funtsezkorik egin.
Hau da egia. Alabaina, johan den
Apirilaren 12-16 egunetan 1500
batzarkide, gehienbat, emakumeak
(monja eta sekular) bildu ziren
Nantes-en gai honen inguru "Hau
rra, haurrak gaur egunean".




Han egon zen ohartzaile arin batek
pentsa zezakean, beste gabe, gisa honetako gaia
sasoin honetan izan daitekeala, bai, bakar batzu
entzat interesgarri, baina ez dela mementoan
jendearen bihotza akuilukatzeko eta astintzeko
gauza. Heziketa aipatzean, lizeoetako gaztetxo
ak eta ikastetxe nagusietako
edo lantegietako gazteak bait
ditugu gogoan. Nantes-ko Biltza
rrak, ordea, merezi duen gaia
dela adierazi dauku, eta zinez,
eguneko prolema bihurri bati
erantzuten diola: 5-11 urteta-
ko haurren mundua bide egokia
delako gizartearen geroaz zen
bait galdera geure buruari e-
gin dizaiogun.



Inguruan eragina

Aida Vazquez, hizlarietako batek, Ma karenko-ri jarraikiaz, "ez dela hezitzailea hezitzen" duena, ingurua bai zik "oroitarazi dauku. Beste hitz batzuetan esanik, ingurua zer den eta zer hortan dagoen hauzia: "non da haurraren lekua". Praktikan irudi du ez dutela haurrek dagokien lekurik, eta baldin badute ere, helduen zerbitzuan dirrela osoki. Beraz, haurrak ahazturik gabilgza. Eta "ahazturikoak" ez dira Mexiko hiri bazterretako txabola multzoetan aurkitzen soilki: gure artean ere bai, ongi janta jantzirik eduki arren, haurrak zeharo zeharo ahazturik daduzkagu-eta. Gure ezin gehia goko arduraz itorik daduzkagu: ez dute berentzat xokorik ere, geure borondate onaren pean plegaturik ditugunez gero. Ororen buru, halere, ez litzake on hezitzaileak sinfonia erdi-amaituan haurren baitan utzirik, antzokitik erretira ditezten. Ez dut uste hau ere jokabide ona litzake anik.



Paulo VI-nak, Biltzarrari bida li zion mezuaren pasarte battek zehazkiago hukitzen du puntu hau: "Hau da gertatzen dena, itxuraz beste, haurra ez dela maiz bere nortasunean es timatzen, bere ahalmen bereziz eta Jainko-graziaren arnasez moldaturik denez, alegia. Are g gehiago, pertsona helduek beren

zorion egoista erdiesteko eta bilatzeko oztopo tzat ikusten edo objektu baten gisa eskukatzen eta erabiltzen dutela haurra".

Agian, ez txarkeriaz baina, handiki mugatzen dugu haurraren denbora libreare ere. Jaten eman bai, hizkuntza, izena, deiturak. ematen dauzkiogu soilki, eta objektu baizik ez diren haurrak sortatzen ditugu; ile gurizko katu diren haurren multzoak egin ditugu;



jantziak eduki tzeko pertxa e do panpinak bai lira erabiltzen ditugu. Baina objektu direnez, ez dute bere izatearen ezagutzarik.

Erne, beren ez-izatearen kontzientzia har balezate egunen batean! Belarriak makur, asto beltxarenak eta bost entzun beharrean gaude oraino, hauek gaztetxo edo gazte bilakatzen diren egunean. Gure desmasiako lotura biguna indartsu eta bihurriegi gertatzen da. Etengo da, ordea, memento batetan; eta entzueraziko dute haurrek beren mintzoa, zeren-eta gauza asko bait dute guri esateko.



Biltzarraren antolatzaileak bildurik zuten egungo haurren mintzoa; dela inkesta bidez, dela soziologo batek haurrekin ukan dituen elkarrizketak direla medio, dela haurrek berek eginiko egunkariak (hitzez, iduriz, marrazkiz eginiko egunkariak) direla bide.

Informazio bilduma honetan gauza miragarriak aurkitu nahi dituenak, ez-ustekoren bat eramango du. Haurrek, beren buruaz dituzten iri-

tziek ez bait dute gehienetan inor kolpatzen eta aztoratzen. Baina berek esaten dutenaren funtsean geure buruak genezazke aurki eta hatzeman. Eta ba liteke hementxe datzala benetako hauzia: gizaki ttipi hauek ispilu edo mirail direla helduontzat. Gure gizarteak ito egin du berauen mundua.




Zer gizarte

Haurrek bizi duten desgustu eta ukazioa ikus teak, konsumo gizarte honen aztertzer a eraman b behar gaitu. Aipaturiko inkesta honen ondorio-

ak esplikatuaz, Nicole Fabre-k, haurrek etxean direla maiz nardatzen esaten du, hortxe jabetzen bait dira gabezia edo frustrazio laukoitz batetaz. Lehenik, beren gisako lagunengandik urrun gertatzen direlako etxean; gero, berek biziki nahi eta desiratzen dutena (konsumoko ontasunak: jostailu, zinema, jantzi, telebis-


ta...) ezin ase a dutelako; berek nahi lukete gurasoek parte har dezaten gehiago beren jolas eta elkarrizketetan; azkenik, egungo bizimoldearen ritmuak gartsuki eragiten dituelako maitasunera eta samurtasunera.



Honek denak iduri du gauza arrunta dela, baina premiari funtsezkoenak arrunt eta axaleko gertatzen dira, non-eta indarrez agertzen ez diren, eta hau da gure kasua. Punturik bihurrienetari ko bat da haurrek bizi duten eskola-arazoa; beste talde, gurasoek bizi duten kezka beraren oihar-

tzun garbia da. Bizitzako arrakasta edo exitoa gero-eta gehiago dago eskolaren arabera. Kezka bihurri hau, beraz, koskortuago diren haurrek sentitzea ez da mirakuilu, eta bereziki, zenbait "girotan" bizi diren haurrek. Izan ere, gurasoek lehen-helburutzat ondorengoei bizi-kondizioak hobetzea dela uste bait dute soilki, bizitzaren egiazko funtsa eta sakontasuna zer den ohartu ere gabe.

Haurrek emaniko erantzunen po bretasunak eta nahasteriak gauza bera adierazten dauku. Negargarria da etorkizunari buruz zer pentsatzen duten galdegin zaienean agertzen duten konformismoa. Bestalde, erantzunetako arintasun hau hiritartzearekin, hots, urbani zatearekin, parean dohala di rudi. Gaurregun, gazteek, eta gisa berean, haurrek, ez dute egin-gogo handirik, eta itxu raz ez dute hortaz sobera sufritzen, baina agian guk bai sufritu behar genuke geldotasun hori ikusirik.




Horiek horrela, delako Biltzar honek hauzi baten itxura ukan du. Hauzia, bai; hori da. Baina ez inor gaitzesteko, heziketa bide garbiak urratzeko baizik. Eta hauek oraino aurkitzeke daudenez, ametsa litzake goitik beherat jautsiko direlakoan egotea. Erakundeen estruktura barnean eta sarturik gauden politikazko jokabide tan, nortasunez, bilatu eta hatzeman beharrean gertatzen gara.


Eliza, haurren mundutik aparte

Guk egiztutzen dugun gertakizuna: haurraren desarroiloa maiz ikuspegi errealista baten baitan datzala, eta konsumo-gizartearen kriterioak dutela soil-soilik moldatzen. Ez ote, kondizio hauetan, buru-buztanik gabea, handixkoen protestak ikusirik, ttikiagoen Konformismoa eta guk proposatzen diegun moralismoa uztartzea? Erremediorik, zenbait "artzainen" kezka edo jokabide jatorra ikusirik ere, Eliza arrisku handitan haurren mundutik aparte dabilela egiztatzea baino. Biltzarrak beretzat gaia hautatzean, ez du, bidezko ezanik ere, behartsuenen alde mintzatzea ukan helburu, baizik-eta zimenduen ezartzea delako arazo hau miatzeko.

Hontan ere komeni bait da azkarki jokatzeari.


(G.Berton, 71-5-6-ko Temoignage Chretien-etik.)





1).- Udako ikastaldia.- Bat hanaka irakasle bakoitzari orria bidaliaz, adierazi da Iruñako Seminario Handian eginen dugun udako gure ikastaldiaren berri; programa, zer lanera e rabiliko dugun, eta beste xehetasunak. Euskal- zaindiaren gidaritzapean burutuko da.

Berebat, harturik duzute, noski, ikas- tola bakoitzean eta ballaraka lantzeko bidali den inkesta edo galdekizuna. Zinez garrantzia handiko dena, baldin-eta errealitatean finkatu- rik ikastaldia egin dezagun nahi bada.



Horregatik, otoi, eskatzen zai zue eran- tzun dezala bakoitzak jatorki eta ahalik sakonen, gogotik hartuaz lan hori eta ez beste zenbait inkesta balitz bezala.

Programa-orria, nahiz inkesta hartu ez duen norbait balitza, aski luke Arantza Arrieta ri edo Nekane Sagastumeri Gordailura eskatzea.

Iruñako ikastaldirako jende multzo a osatzen ari da, baina izena ematea aski ez dela ere pentsatu beharreko gauza da. Izenare- kin batera, derriorreko jotzen bait da, lan sailen batetan a- ri dena baldin bada, eskuartean daramaten lana azkartzen saia tzea; eta edonor dela ere, norbe re urteko lanak, materiala eta esperientziak biltzen, metatzen edo ordenatzena ahalegintzea.



datorren hilabeteko aldizkaria osoki kurilloei emanak johango da. Hari nagusietan lotzen edo prestatzen ari gara, baina denon lankidetzan, zer-nahi delarik ere, estimu handian dugu eta, beraz, saia zaitezte lehen bai lehen Arantzana nahiz Nekaneren izenean bidalitzen.

2).- Bizkaiako aireak.- Azkeneko aldizkarian eta informazio atalean, hain xuxen, ez nuen Bizkaiako berririk ikusi. Honek bultzatu nau idaztera. Arduradunekin hitzegin ondoan, beroriei kendu neuzkien datoekin osatu dut informazio hau.



-Hasteko, esan behar dut, egun, ona dela gure egoera, nahiz-eta azken aldian inspetore miressgarri batek ikastola bi hertsitu baditu ere.



Bizkaia aldean, ikastolen organizazioa, gurasoen aldetik, hiru taldetan banandurik aurkitzen da: Euban batzen diren gurasoak; Euskerazaleak; eta beste talde batenak. Azkenik, beste erakunde bat ere sortzen ari da, Elizarena. Adibidez, Ondarruan eraiki dena (lehenetik ba zen ikastola; orain bestea) eta Bilbao, hauek abadeak agintzen dutelarik.

Gurasoek zuzendaritza duten ikastolak dira ugariak eta irakasleok hauekin batera egiten dugu, bide hau irizten bait dugu gehienok jatorrena. Beste ikastoletan dabilzan ere ez dute trabarik gurekin lan egiteko.


Ballaratan banaturik gagoz: a) Bilbao aldean: Santutxu, Begoña, Aize errota, Deusto, Eran dio, Galdakao, Orozko.

b) Eskuin aldeak: Algorta, Hondarreta, Sopelana, Lexona, Getxo, Berango.


d) Ezker aldeak: Barakaldo, Portugalete, Santurtze, Simondrogas (Sestao).

e) Itsas-aldeak: Ondarru, Markina, Gernika, Ea, Lekeitio, Bermeo.


f) Durango aldeak: Durango, Idorreta, Elorrio, Matiena, Zaldibar, Hermua, Zornotza, Berri z.



- Gurasoen heziketa dela-eta zenbait konferentzia eman dira aurten ballara gehienetan. Hauek izan dira gaiak: "Ikastolaren sortzea eta helburuak"; "Herria eta hizkuntzak"; "Gurasoen erresponsabilitatea haurren heziketan eta herri erantzuna"; "Erlixioneari buruz" ere bai



zenbait lekutan. Konferentzia guztiak ez dira ballara guztietan emanak izan baina bai gehienetan eta gurasoen harrera ona izan dela entzun dugu. Hizlariak: Joseba Arrieta, Xabier Mendiguren, Dositeo Aldai, Joxe Ertzirengoa, Imanol Laspiur.



Datorren urterako kursoaren hasieratik planteatu ko dira lanak ta hizlarien artean ere ekipo lana erabiliko da. Hau da, behintzat, hizlari batzuen asmoa eta arduradunena ere. Hi labetero egiten dira batzar nagusiak. Euban izaten dira, hilaren hirugarren larunbatetan.




- Aurten koloniak Murgian eta Zuatzon izanen dira. Murgian:uztaileko 26-12 arte; eta abuztuko 12-30 arte. Zuatzon, berriz, uztailleko 12-30; eta abuztuko 12-30 arte.

3) Zenbait ikastoletan eztabaida. - Ba da bilesamesa frango bazterretan! Dena gezurra ez, ordea, agian. Hazte eta handitzearen prolema ote, zenbait ikas oletan gertatzen den sokatira hori? Adibidez:

-Urretxua dugu horietako bat: irakasleak beren artean ezin konpondua; odol-berritu gabeko gurasoen batzorde heresia; eta ororen gaindik, egoera bihurri hau dela-eta, herriak sortu eta orain arte herriak arnastu duen ikastolaz jabetu ondoan, fraileek eman duten, gure ustez, pauso faltsua. Baliteke jokabiderik egokiene tan egokiena berau izatea, baina, ez da dudarik, herriak kora piloa berak aska dezan laguntzea baino errazago dela mila bider ere guraizez lokarria moztea: Elizaren kolejio bihurtzea, alegia. Gero da bihar! esan ohi den bezala.



-Hernani. - Agidenez, bide herstatik zohan hemengo ikas ola, bai gurasoen alderditik ikusten badugu, bai andereño zuzendari eta multzorik handienari behatzen badiogu. Ez ziren, aldiz, guztiak konforme, nola guraso gazteak hala zenbait andereño. Tartean, maiz gertatzen den bezala, gaurregun prolema diren gauzak sartu (erlijioa, euskara batua...) erro-errotik berritze ari diogun beldurra ezkutatzeko,



eta kaixo motel.

Ororen buru, ba dirudi sendotu egin dela gaztelu zaharra eta delako andereño horiek hanka egin beharrean direla.


Dena dela, gauza bat ageri da: hemendik aurrerat gure organizazioak beharko duela parte hartu horrelako gertakizun bat denean, hauzia beti indarraren aldera ez-baina, arrazoinaren aldera irauli dadin.

-Lazkao. - Hemen ere berriro gertatu da ra johan zen udako kolpeak. Halere, ez orduan be zain bortitzak, sobera nabarmenak izan bait di- ra oraingoan eta bestalde, jendea jantziago ere bai. Orduan ohartu ez zirenak ere oraingoan o- hartu dira.

Azkenean, andereñoen ekipoa berritze ko bideak dira eta gurasoek ere gogoz ekin di ote ikastola berri bat eraikitzeari, Mikelar El kartearen ardurapean.

4) Arratseko ikastola lege bidean. - Agi an, prezio handitxoak pagaturik, baina egia da. Kondizio bezala, alkatea eta kontseiluko bi ba- tzordeko izan ditezen eskatu diote, eta baietza rekin batera, ikastola ere lege bidean dute.


5) Gazteizko irakaslegaiak. - Guztiz ego ki iduritu zaigu Ikastolako zuzendariek hemen




hartu duten jokabidea. Alegia, az ken orduan mementoko xuloak hor nitzeko irakasleak bila-ezinean ibili gabe, maisu-maistra gaiekin zenbait batzar edo har-eman uka naz, alde z aurretik jendea landu eta Arabako ikastolen geroa zu-

hurki prestatzen dihardute.

6) Baionako merkatariak.- Baionako ferietan (aste bete iraingo dute) mugaz handiko ikastolak "stand" edo saltoki bat hornitzeko asmotan dira: dela liburu, dela diska, dela ikasto letako materialaz. Bereziki, egun bat dadukate izendaturik, uztaileen hirua, larunbata. Ez ahaztu, bada, egun horretan hango ikastolek San Leon karrikan emanen daukuten ikuskari edo emaitza.



7) Liburu batzuen itzultzea.- Goiherri ballarako guraso multzo batek Freinet-en materiala biltzeari ekin dio eta zenbait libururen itzultzeko laguntza eskaini dauku. Hala nola: "Le texte libre", "L'education morale et civique", "Milieu local et geographie vivante", "Les plans de travail", "Les techniques audiovisuelles", "Les techniques Freinet a l'ecole maternelle", etab. berehalako batean eskuetan ukanen ditugula euskaraz moldaturik esan zaiku eta benetan, pozik gara notizia horrekin.



Are gehiago, handiki estimatzen dugula laguntza hori esan behar; guraso hauek jaun txokeriaz eta gu maneiatzeko asmoz ez-baina, jator eta leialki gure lanerako laguntza emanaz heldu bait dira. Denok ere bata bestearen e-

remuan sartu gabe eta jauntxokeria oro zokoratuz gero, zenbat lan ez ote genuke elkarrekin burutuko!

8) Haurride.- Material multzo handia sartu da gure dendan aspaldi honetan. Ez da kurtsu hastapenetan edo Gabonaldia bezain garai egoki a feria ona egiteko, baina guztion kolaborazioa eta ardura eskatzen da orain ere. Orain... eta are gehiago.

Urretxuako biltzarrean Haurriderako izendatua izan zen Jone Olaizolak, bigarren libe ratuak, ezetza eman dauku azkenean, eta honen ordainez, Mertxe Agirre gelditzen da Arantza Arri etarekin batera. Ongi etorriak ditezela Donostia aldera!

9) "Walt Disney" en liburuak.- "Gauza Harrigarriak" izenburutzat duen liburu sail berria argitaratzera doha egun batetik bestera. Komeni zaiku lan piska bat egitea eta ahal dugun neurrian hontan parte hartzea. Ez, noski, egia, gu muntatzera gohazen Ikastola-Liburutegien moldeetan sartzen delako sail hau, baina bai, hura mugierazteko iturri bat dugulako.

Hargatik, "iñakibeobide" banatzailearekin har-emanetan gara; gure aldetik ere ba dugu zenbait ordezkari (hauei esker hatzeman dugu erbia) eta arduradun bat bereziki, Arantza Arrieta. Hortan emaniko izerdiak ekarriko ahal dauku uztarik! Ba da premiari asko, ahalik ari nen Liburutegien korapiloa askatuko badugu.

Berrizetazi

